



KAOTIKO rockeroak Aguraingoak (Araba) dira jatorriz. Rock talde mitikoen babesean sortu ziren –“La Polla Records” besteak beste–, eta haien funtsa eta izaera, haien ondarea, heredatu zuten. Berehala lortu zuten, ordea, soinu berezi eta berezko bat, distiratsua, sendoa, kementsua, mundu propioak sortzen dituen, originalak eta transferiezinak.

Taldea 2000. urteko uztailean sortu zen. *Kaos Etíliko* taldea desegitean gertatu zen guztia; bateria eta kantaria zenak taldea utzi zuenean, *Kaos Etíliko* beste hiru kideak geratu ziren: **Fonta** (baxua), **Aguayo** eta **Aguayiko** (gitarrak). Hasiera batean taldearen desegitea izan zena, berehala bihurtu zen proiektu berri eta garrantzi handiko bat, **Johny** (ahotsa) y **Xabi** (bateria) taldera gehitu zirenean. Hala sortu zen KAOTIKO, bi kide berri hauek lehengo beste hirurekin elkartzean.

KAOTIKOkoak musikari onak dira, ezbairik gabe, talentu berezkoa dute melodiarako. Bere kantu guztiak himnoak dira kasik, eta gustu berezia erakusten dute lelo, errepika eta ahots jokoetarako. Horri trebetasun argia eransten diote, sortze indar handikoa, bere jarraitzaileen errealitatea, soziala eta gizatiarra, jasotzeko eta sintetizatzeko (azken batean, bere errealitatea ere bai baita). Mezu baikorrak eta biziak transmititzen dituzte, jende askoren sentimenduak ukitu eta horiekin bat datozenak; bere musikak ahalegin berezia egiten du pertsona guztiok dugun askatasun irrika asebetetzen, eta bete-betean asmatzen dute, gazteekin batez ere.

2001. urtean **Oihukak** taldearen lehenengo albuma (“Mundo kaotiko”) argitaratu zuen; album azkarra zen, oldarkorra eta konprometitua. Lehenengo urrats hura garrantzi handikoa izan zen, rock munduko talde karismatikoetako bat bezala sartu baitziren milaurte berrian.

2003. urtean “Raska y pierde” (**Oihuka**) argitaratu zen, eta berehala gainditu zuen aurrekoa kalitatean, soinuan eta salmentetan. KAOTIKO hotsa duen taldea da ordurako, erreklamatu egiten dute, eta beren kantuak biziak dira, adierazkorrak eta entzulearen belarrira itsasten dira.

2005ean CD/DVD bat argitaratu zuten (Gor) zuzenean grabatua. Ordurako irabazia dute publiko zabala hala Euskal Herrian nola Espainiako estatu osoan; atsedetik gabe ematen dituzte kontzertuak eta nonnahi dira txalotuak, goraiatuak eta galdatuak.

2006an “Destino escrito” (Universal) argitaratu zuten, hasierako zantzuak baieztatzen duen diskoa. Taldea haziz doa diskotik diskora, emanalditik emanaldira, eta jarraitzaileak irabaziz doaz etengabe, kimika gehituz bere publikoarekin eta bere etorkizuna jorratuz.

“**Adrenalina**” izeneko hau da bere azkeneko diskoa. Jatorrizko diskoetxearekin harremana berreskuratu dute, **Oihukarekin**, eta hasierako kemena eta indarra erantsi diote lanari: irmotasun orekatua, abiada iradokitzaila, indar erakargarria duena, koherentzia basatia. Patxadaz landutako lana da, bide onean doanaren uste osoarekin egina. Hamahiru kantu aurkezten dituzte, konposizio aldetik oso maila handikoak guztiak; barrutik erretzen dituzte kantuak, eta bere publikoari erantsi nahi diote beren berotasun suharra. Eszenatokian dinamika erakargarria aurkezten dute, irudi natural eta fresko bat; sinesgarritasuna transmititzen dute, suhartasuna eta fedea beren proposamenean. Beren zuzenekoa suntsigarria da, guztiz gomendagarria.

Bizi-biziak dira, eromenezkoak, kitzikagarriak... KAOTIKO dira; gaur egungo rock-punk-aren erreferentzia musikal sendoenetako bat. Beren jatorriak eta eraginek rock taldea izatera eraman zuten, baina orain dela urte askotatik nortasun propioaren jabe dira: Kaotiko dira, Kaotiko soilik.

Orain, beste batzuek jarraitzen dituzte, beraiek dira erreferentia.

Promozioa / promoción: Oihana Otaegi · 620189080 · oihuka@oihuka.com



KAOTIKO son rockeros y proceden de Salvatierra (Álava). Nacidos al calor de míticas bandas como La Polla Records, heredan lo mejor de su esencia y rápidamente consiguen un sonido propio, brillante, férreo y enérgico, creando mundos propios, originales e intransferibles.

La banda se formó en julio del 2.000 a raíz de la marcha del cantante y el batería del grupo *Kaos Etílico*, quedando los otros 3 miembros originales de la banda: **Fonta** (bajo), **Aguayo** y **Aguayiko** (guitarras). Lo que en un principio fue un desmembramiento de *Kaos Etílico*, enseguida se convirtió en una realidad importante al incorporarse al nuevo proyecto **Johnny** (voz) y **Xabi** (batería) que, con los mencionados anteriormente formaron KAOTIKO.

KAOTIKO son indudablemente buenos músicos con talento natural para la melodía. Todas sus canciones son poco menos que himnos y demuestran un gusto especial para los estribillos y sus respectivos juegos vocales. Añaden a esto una destreza inteligente y creativa a la hora de observar y sintetizar la realidad social y humana de su público (que es la suya propia al fin y al cabo), transmitiendo mensajes positivos y vitales que atinan con el sentimiento de mucha gente; aciertan, sobre todo, en el anhelo de libertad que llena el corazón de toda persona, sobre todo de los jóvenes a quienes sin duda ayudan de un modo particular.

En el año 2001 **Oihuka** publicó su primer álbum ("Mundo kaotiko"), rápido, agresivo y comprometido. El álbum les sirvió para arrancar con buen pié y presentarse como uno de los grupos más carismáticos del nuevo milenio.

En el año 2003 se publica "Raska y pierde" (**Oihuka**) y rápidamente supera en calidad, sonido y ventas al anterior. KAOTIKO es ya una banda reclamada. Sus canciones son expresivas, pegadizas e intensas.

En el 2005 publican un CD/DVD (Gor) grabado en directo. Para entonces ya han ganado un amplio y fiel público tanto en Euskal Herria como en todo el estado donde no paran de tocar y de ser aclamados, coreados, requeridos...

En el 2006 publican "Destino escrito" (Universal), disco que confirma la intuición inicial. El grupo crece de disco en disco, de actuación en actuación añadiendo público, sumando química y labrando su futuro.

Este "**Adrenalina**" es su último disco. Recuperan la relación con su compañía inicial, **Oihuka**, así como la garra de los inicios: contundencia equilibrada, galope sugerente, coherencia salvaje. Es un trabajo elaborado con tiempo y con la convicción de estar en el buen camino, presentando trece nuevos temas de muy alto nivel compositivo, canciones que les queman por dentro y que desean fundirlas con su público. En el escenario, igualmente, presentan una dinámica atractiva, una imagen natural y fresca, transmiten credibilidad, entusiasmo y fe en su propuesta. Su directo es sencillamente demoledor, algo muy recomendable.

Intensos, frenéticos y excitantes, KAOTIKO son actualmente una de las referencias musicales más sólidas del rock punk. Sus orígenes e influencias les motivaron a ser una banda de rock, pero desde hace muchos años son solo ellos, Kaótico, sólo Kaotiko.

Ahora, otros les siguen, ellos son el referente.

Promozioa / promoción: Oihana Otaegi · 620189080 · oihuka@oihuka.com